

Irurtzun-Andoain autobidea

«Azken ahalegina» eskatu du Lurraldeak akordioa ziurtatzeko

Arratsaldeko bostetan abiatuko da Ondarretatik 'Akordioari Bai' manifestazioa

Lurraldeak koordinakundeak «azken ahalegina» eskatu zuen atzo, «hainbeste urteko borrokaren fruitua den akordioa ziurtatu eta burutu ahal izateko». 'Akordioari Bai' manifestazio isila gaur abiatuko da Donostiako Ondarretatik.

DONOSTIA

Lurraldeak koordinakundeak azken deialdia egin zuen atzo arratsaldean Eli Galdos, Gipuzkoako diputatu nagusiarekin lortu zuten hitzarmena aldeko manifestazioan parte hartzeko. «Azken bost urteotan mugimendu hau bultzatu duten milaka lagunei, ekologista eta mugimendu sozialetako kide guztiei, eta elkarriztaren alde eta benetako demokraziaren alde dauden guztiei azken ahalegina egin dezaten eskatzen diegu» azaldu zuen atzo Victor Aierdi, koordinakunde bozeramaileak.

Lurraldeak deitu duen 'Akordioari Bai' manifestazioa gaur arratsaldeko bostetan abiatuko da Donostiako Antiguoa auzotik. Irteera puntua Zumalakarregi eta Satrustegi etorbideen artean egongo da, Ondarretako lorategian konkretuki. Kontxako pasealekutik barrena, erdiguneko kaleetan sartuko da Bulebarraren amaitzeko. Bertan Jonan Fernandez eta Victor Aierdi bozeramaileak bildutakoei zuzenduko zaizkie.

Manifestazioa isila izango da eta 'Akordioari Bai' lema daraman pankartak zabalduko du. Lurraldearen



B. AZURMENDI

ustez, Galdosekin lortutako Bela-bietako akordioa edo A-4 deitu izan dena «konkista sozial» inportantea da, eta «hori gauzatu dadin beharrezkoa da azken bultzada bat ematea», Aierdik atzo azaldu zuenez. Akordioa gainontzeko mugimendu ekologiko eta sozialei eskaintzen diela Lurraldeak.

Akordioa gauzatzeak Euskal Herriko gainontzeko mugimendu sozialengan izango duen garrantzia azpimarratu zuen. «Haundia da baita ere instituzio eta herritarren arteko harremanen normalizazio demokratikoari begira» gaineratu zuen.

MANIFESTAZIOARAKO ZENBAIT AHOLKU

Manifestazioa isilean burutuko dela gogoratu du Lurraldeak, baina jai giroko elementuen bidez alaitzea proposatu du, txaranga edo ta trikiti-

xa bidez. Manifestazioaren aldeko jarrera erakutsi duen talde bakoitzak berriz, pankarta bakar bat eraman ahal izango du. Lurraldearena izango da lehena eta atzean izango ditu Nafarroako koordinakundeena, talde ekologistena eta alderdi politikoena azkenik.

Trafiko arazoez Donostiako Udaltzaingoa arduratuko dela adierazi du, eta baita autobusen aparkalekuaz ere. Kotxe edo autobusez bertaraten direnak Antiguoa auzotik sar daitezela Donostian eskatu du, eta baita nahikoa denboraz iristea ataskoak eragozteko.

Manifestazioan zehar Lurraldeak koordinakundearen aldeko dirua eskatuko da, «Koordinakundeak une larria bizi duelako».

ELKORO: «LEITZARAN SALBATZEKO BEHARREZKOA»

Jose Luis Elkoro, Gipuzkoako Batzar Nagusietako Herri Batasunako bozeramaileak atzo esan zuenez, «mobilizazioa beharrezkoa da Leitzaran harana eta Lurraldeak eta Gipuzkoako Diputazioak lortu zuten akordioa salbatzeko». Akordioa porrot egiteko arriskuan dagoe-la gogoratu zuen.

Bere ustez, abuztuaren 9an lortutako aurreakordioarekin «instituzioak herrien nahia kontutan hartzen hasteko bidea zabaldu zen». «Aukera historikoa da hau —jarraitu zuen— ezin dugu alde batera utzi eta ezin dugu onartu A-4 proiektuak porrot egitea».

BI GOARDA ATXILOTURIK

Irurtzun-Andoain autobideko lanetan dabiltzan bi zinpeko goarda atxilotu zituzten atzo Iruñean gazte bat erasotzeaz akusatuta. Ez zen atxilotutakoen nortasunik eza gutzera eman, Leondik eta Madriletik Lekunberrira etorritakoak dira autobideko sgurtasun lanetan egoteko. Gertaerak Iruñeko alde zaharrean izan ziren. Gazte bat beren kotxean sartu eta autopistatik Irurtzun aldera eraman zuten, eskuak lortu ondoren kolpatzen zutelarik. Deskuido batean ihes egin eta beste auto batek hartu zuen.

EAJ eta PSOE negoziatzen ari dira gobernu berria osatzeko

F.I. / GASTEIZ

Jesus Egiguren, PSE-PSOeko Gipuzkoako idazkari nagusiak eta Jon Azua lehendakariordeak negoziaketei buruzko lehen datuak plazaratu zituzten atzo. Biak bat etorri ziren negoziaketak «diskrezio osoz» egin behar direla eta zailtasunik ez direla izango esaterakoan. «Zailtasunak beti izaten dira gobernu negoziatzeko, baina duela zapi hilabete gertatutakoa ikusirik, gauzak garbiago daudela uste dut» esan zuen Egigurenek.

Jon Azuak akordioa «berehala» helduko dela adierazi zuen, eta datorren astean gobernu berria egongo dela ziurtatu zuen. Osaketa prozesua laburra eta «zailtasun gabekoa» izango da Azuaren ustez: «Aukera bakarra dago, erabiltzen ari dena, eta badakigu zeri erantzun behar dion».

Zailtasunak izatekotan kartera banaketan agertuko dira. PSE-PSOEk lehendakariordetza eta lau sailekin, EAK eta EEK utzi dituztenak, konforme egongo zela aipatu bada ere, Egigurenek «hori baino zerbait gehiago» lortuko dutela jeltzaleengandik uste du. «Besteak utzitakoa hartzea behin ere ez da izaten inork nahi duen gauza, orduan gure ustez —adierazi zuen Egigurenak— dudarik gabe, kontseilaritza horiek baino gehiago eta baita ere inportanteak behar ditugu».

JARRERAK MALGOTU BEHAR

Zenbat lehendakariorde izango diren oraindik ez da zehaztu. Egigurenen esanetan, «zenbat izango diren, bat ala bi, hitzegiten ari dira bi alderdiak».



Jon Azua.

Azua oraingoz lehendakari bakarrak aldez, ez zuen zehaztu nahi izan. «Aukera ezberdinak irakurri ditut, eta denak dira posibleak» esan zuen.

Negoziaketaren oinarria duela zazpi hilabete sinatutako EAJ-EE hitzarmena da. Orduan oinarri berberarekin ez zuten lortu akordioa, baina orain gauza bera ez dela gertatuko ziurtzat jotzen da. «Gobernua osatzeko borondatea dago jokoan. Batzuek eta besteek onartzen dugu erantzukizun hori eta jakina da bestelako arazorik gabe egingo dugula» esan zuen Azuak.

Antzerako iritzia azaldu zuen Egigurenek jarrerak malgotzearen komenientziak. Zentzu honetan, duela zapi hilabete ituna eragotzi zituzten gaiak ez dira mahaigaineratuko, hala nola, euskal bankuaren osaketa, Justiziako pertsonalaren ematea eta Gizarte Segurantzako erregimen ekonomikoa kudeatzea.

Arzalluz gobernu zentralaren mezulari dela dio Idigorasek

BILBO

Jon Idigoras HBko eledunak EAJri leporatu zion atzo Euskal Herriari «atzea ematea, gobernu nazionalista bidera ezina bezala aurkezteagatik». Arzalluz «gobernu zentralaren errekaduetarako mutila» zela esan zuen eta bere alderdia «PSOEn soziorik onena errebindikazio autodeterminaziozaleak edo independentiazaleak ekiditeko unean, gure herriaren gehiengoaren interesen aurka».

Atzo Bilbon eskainitako prentsaurrekoan, Idigoras eta Erkizia HBko ordezkariak bat etorri ziren, Ardanaz EAtik kanporatzeko erabilitako argudioak «aitzakiazat» hartu bait zituzten biek.

«Funtsezko arazoak —esan zuen HBko ordezkariak— ez ziren izan ezta EAK eta HBk aur-

keztutako independentzia mozioak ere, Garaikotzeak Ardanazari bidali zion eskutitzean hauek berraztertzea agintzen bait zion». Idigorasen ustez, Gobernu hausteko benetako arrazoiak aurretik PSOekin hitzarmena sinatua edukitzea izan da, hauteskundeak aurretik ere, «orduan ezusteko tirabirengatik huts egin bazuen ere».

EEK hurrengo Gobernuan jokatuko duen paperari buruz «Auzaria Eneako atezain» izango dela esan zuen Idigorasek, eta hurrengo gobernu bikoitza izango da bere iritziz.

EAJ-EA-EE hirukoitzak ekarriko duen egoerari buruz, HBko buruzagiak berretsi egin zuen hiru aldetako egoera politikoa finkatuko dela, alegia, EAJ, PSE-PSOE eta HB. HBko eledunak EAJri «sozialisten defendatzaile» bihurtzea leporatu zion.

Talde ekologista ugarik azaldu du akordioarekiko adostasuna

DONOSTIA

Lurraldeak eta Foru Aldundiak sinatu duten hitzarmena talde ekologisten oneritzia lortzen ari da azken egunotan. Akordioaren alde azaltzeko gaur egingo den manifestazioa dela eta, hainbat talde ekologistak elkartasun jarrerak agertu dituzte.

Talde horien artean daude, Itoitze koordinakundeak, Arizarte-Sorogain urtegiaren aurka borrokatzen duen koordinakundeak, Arungureneko zaborteziaren aurkakoak, Ibagua ibaia defendatzeko koordinakundeak, Sakana Herrietako Batzarrak, Ordi Vigas Els Verts alderdiko burua eta F.A.T. taldea.

Iparraldeko Euskal Herriko berdeak, Eguzki, Euskal Herriko berdeak, WISE (energia nuklearrari buruz berriak eskaintzen duen zerbitzua), Abraren defentsa batzordea, Basauriko tailer ekologista, Atxabaltako Amilox talde ekologista, Mendia Bizirik Bergarakua eta Muskizeko Muskerra talde ekologistak

ere autobiderako akordioaren alde azaldu dira.

AABB-AK MANIFESTALDIAREN ALDE

Amnistiaren Aldeko Batzordeak

Lurralde koordinakundeak deitutako manifestaldiaren alde agertu ziren atzo igorritako ohar baten bidez. «Gure iritziz manifestaldi hau bultzatzea gatazka sozialari aurre egiteko militarizazioa, errepresioa eta inposaketa erabili ordez elkarriketa bultzatzea da», azaldu zuen erakunde horrek.

«Manifestaldi horretan —segitu zuten Amnistiaren Aldeko Batzordeak— horixe defendatuko dugu, demokraziaren kontzeptu zehatz bat, ideiak alderatzen eta iritziz publikoaren partehartze erreal eta etengabea oinarritzen dena».

Aitzitik, erakunde honek «demokrazia hautes-paperarekin konfunditzen» dutenak aipatu zituen, «edonor jausita ere, edozer kostatuta ere, proiektuak eta irizpideak inposatzeko txeki zuri» bezala.